

OLENTZERO

OLENTZERO JOAN ZAIGU
MENDIRA LANERA
INTENTZIOAREKIN
IKATZA EGITERA.

ADITU DUANIAN
JESUS JAIO DALA
LASTERKA ETORRI DA
BERRIA EMATERA.

HORRA, HORRA,
GURE OLENTZERO
PIPA HORTZIAN DUELA
ESERITA DAGO.

KAPOIAK ERE BADITU
ARRAUTZATXUEKIN
BIHAR MERIENDATZEKO
BOTILA ARDUAKIN.

OLENTZERO BURU HANDIA
ENTENDIMENTUZ JANTZIA
BART ARRATSEAN
EDAN HOMEN DU
HAMAR ARRUKO ZAHAGIA.

BAI URDE TRIPAUNDIA
TRALA LARALA TRALA LARALA
BAI URDE TRIPAUNDIA
TRALA LARALA TRALA LARA.

ALAKEN

ALAKEN, ALAKEN
ALA PIKULA TUM PAIRE
ERRESPUN DELA PIKULA TUNPA
JESUS MARIA JAINKOA ZEN.

ADISKIDEOK!
IKUSI DUZUE ZELAI HORIETAN ARTZAIA.
ARTZAIN TXIKI, ARTZAIN HAUNDI
ARTZAIN MUTUR LEUNA.

ALAKEN, ALAKEN...

ETXE HONETAN

BARRIRO BE LOTUKO GARA,
SUTONDOAN DENOK BATERA,
- OLENTZERO NOIZ DATOR, AMA? -
TXIKIXEN BETIKO GALDERA.

GABON GABIAN ALKARTUTA,
SENIDE, HERRITAR, LAGUNAK,
ETXE HONETAN SARTZEN DANA,
ETXEKOTZAT HARTUKO DA. (x2)

AINTZINA EITXEN ZAN ANTZERA,
HAUXE DA GEURE HERRIKO OHITURA,
BADATOR URTE AMAIERA,
MIN DANAK BOTAIZUZ SUTARA!

GABON GABIAN ALKARTUTA,
SENIDE, HERRITAR, LAGUNAK,
ETXE HONETAN SARTZEN DANA,
ETXEKOTZAT HARTUKO DA. (X2)

GEURETZAT HAUXE DA HANDIXENA,
MUNDUKO ALT XORRIK EDERRENA,
AMUMAK JAGON EBAN EUSKARA,
GAUR LOBAK EINGO DAU BERBERA.

GABON GABIAN ALKARTUTA,
SENIDE, HERRITAR, LAGUNAK,
ETXE HONETAN SARTZEN DANA,
ETXEKOTZAT HARTUKO DA. (x2)

HATOR HATOR

HATOR, HATOR MUTIL ETXERA!
GAZTAINA XIMELAK JATERA,
GABON-GABA OSPATUTZEKO
AITAREN TA AMAREN ONDOAN.
IKUSIKO DEK AITA PARREZKA
AMAREN POZ ATSEGINEZ

ERAGIOK, MUTIL,
AURREKO DANBOLIN HORRI
GAZTAINAK ERRE ARTIAN
GAZTAINAK ERRE ARTIAN
TXIPLI, TXAPLA, PLUN!
GABON GABA
POZIK IGARO DAIGUN. (X2)

OPARIRIK POLITENA

Ohhh ohhh ohhhh

**OPARIRIK POLITENA
ZU ZARA,
NI ZUREKIN
ZU NIREKIN
EGOTEA.**

Ohhhh ohhh ohhhhhh4

BADATOZ URTERO BEZALA,
BADATOZ MENDITIK BEHERA.
BADATOZ URTERO BEZALA,
MARI DOMINGI, OLENTZERO ETA ASTOTXO.

**OPARIRIK POLITENA
ZU ZARA,
NI ZUREKIN
ZU NIREKIN
EGOTEA.**

Ohhhhh ohhhhh ohhhh4

DAUKANAK EZ DAUKANARI,
DEKONAK EZ DEKONARI,
HORRELA IKASI NUEN NIK,
HORRELA IRAKASTEN DIZUT ZURI.

Oparirik politena...

(erreprodukzio-zerrenda) [Gabon kantak ;\)](#)